




► Leioako gazteen
lonjetarako gida



Gida honen helburua, batez ere, lonjak erabiltzen dituzuenon eta inguruan bizi zairenen **segurtasuna** eta **bizikidetz**a bermatzea da.

Lonjan ipini beharko da, begi-bistan, erabiltzaile guztiek ezagut eta bete dezaten.

Zalantza edo galderarik izanez gero, jarri harremanetan Gazte-lonjak zerbitzuarekin, eta bertan, lagundu eta orientatuko zaituztegu gida honek dakarrena behar bezala bete dezazuen.

KONTAKTUA

GAZTE-LONJAK
Leioako Gazteen Lonjen
Bizikidetzarako Zerbitzua
Telefonoa: 94 412 66 58
Mugikorra: 638 322 065
gaztelonja@leioa.net

Gazteen lonjak gazteentzako¹, topagune eta aisialdirako gune dira, eta helburu eta erabilera horrek sailkatutako beste guztietatik desberdintzen ditu. Beraz, ez da jendarte publikoko espazioa, ezta txoko, merkataritza lokal edo ustiapen ekonomikorik duen beste edozein lokal ere.

Lonja ez da etxebizitza edo ohiko bizileku inorentzat. Beraz, ezin da inor bertan erroldatuta egon, ezta gaua pasatu ere.

Gazteen lonjarena berezkoa ez den edozein jarduera debekatuta dago, hala nola, salerosketak, aktibitate gogaikarriak, kontzertuak edo makrojaiak antolatzea, eta edari alkoholikoak saltzea.

Gai administratiboak

- *Gida hau ezagutzen dela dioen, adostasuna adierazten duen eta honako agiri hauek dituzula, (Udalak eska ditzake) **dioen zinpeko adierazpena** sinatzea:*
 - Tindarrean dagoen **kontratu** bat edukitzea, edo hala badagokio, lokala gazteen lonja gisa erabiltzeko baime-na ematen duen agiria. Kontratua jabeak, eta gutxienez, lonjako 6 erabiltzailek sinatu beharko dute.
 - **Arrisku anitzeko aseguru poliza** (edukitzailea eta edukia).
 - **Erantzukizun zibileko poliza.**


Harremana

- Gazte-lonjak zerbitzuari lonja erabiltzen dutenen **kontaktu** bat edo gehiago ematea, baita jabearen kontak-tua ere.

¹ Gazteak: 14 eta 35 urte bitarteko pertsonak.

Bizigarritasuna

- Gomendatzen da lokalaren **azalerak** ez gainditzea 100 m² eta **garaiera**, gutxienez, 2,30 m-koa izatea.
- **Ur edangarria** edukitzea, sare orokorrekoa, ahal bada, kontagailu indibidualarekin.
- **Argi elektrikoa** edukitzea. Instalazio elektrikoa instalatzaile baimendu batek egin beharko du eta behertentsioko erregelamendu elektroteknikoa bete, eta ahal bada, kontagailu indibiduala eduki beharko du.
- Ezin dute eduki etxebizitzena berezkoa edo berezia den ekipamendurik (sukaldeak, oheak...).
- Gutxienez, 1,2 m² duen **komuna** edukitzea, **komunontzi eta konketa** dituena.



Bizikidetza

- Gazteen lonjak ez daude pentsatuta 24 orduz erabiliak izan daitezen. Oso inportantea da **auzokideen atsedeen hartzeko eskubidea errespetatzea, batez ere, 23:00 eta 7:00 bitartean.**
- SUDal ordenantzak eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa, ezartzen dituzten **zarata-mugak** errespetatu beharko dira, eta kontu handiagoz 23:00 eta 7:00 bitartean.
- **Musika-ekipo, telebista edo antzekorik** erabiliz gero, horiek ezin izango dira kokatu ate, leiho eta hormen ondoan.
- Halaber, kantatzea, txistu egitea, oihukatzea, atek edo pertsianak etengabe ireki edo ixtea ekidin beharko da, baita motordun ibilgailuen zaratak ere.

² Bizilekuetan, Dekretuko 1. eranskineko 1. ZATIA aplikatzen da:

- Lonja barruan, 23:00 eta 7:00 bitartean, gehienez, 55 dB(A)-ko zarata atera daiteke. Konparazio bat egiteko, maila hori bolumen ertain-baxuko elkarrizketa batekin dugunaren parekoa da, gutxi gora behera, edo telebista baxu jartzen duguneko.

55 dB(A)-ko zaratarekin, lokala isolatuta eduki gabe, ondoko etxebizitzara hel daitekeen zarata 30 dB(A) ingurukoa izan daiteke, ordutegi honetan onartzen den maximoa.

Lonjatik ateraz gero, maximoa 55 dB(A) horiek dira, eta beraz, bolumen baxuan hitz egin ahal izango da soilik.

- Egunez, 7:00 eta 23:00 artean, lonja barruan onartzen den bolumen maximoa 75 dB(A)-koa da. Bolumen hori elkarrizketa normal batekoa da, oihurik gabe, eta telebista ere bolumen arrunt baten jartzen deneko maila da.

Horrela, 75 dB(A)-ko zaratarekin, lokala isolatuta eduki gabe, ondoko etxebizitzara hel daitekeen zarata 35 dB(A) ingurukoa izan daiteke, ordutegi honetan onartzen den maximoa.

Lonjatik ateraz gero, maximoa 65 dB(A) dira.

- **Lonjaren kanpoalde eta inguruan** ezin izango da aulki, mahai eta antzekorik jarri, eta higiene egoera onean egon beharko da. Ezin da objekturik abandonatu edo zakarririk utzi.
- Gomendatzen da, lonjatik irten eta ateratzeko, modu mailakatuan egitea, tarteka.
- Lonjako erabiltzaileek behar bezala **aparkatu** beharko dituzte ibilgailuak lonja inguruan.

Osasuna

- Gogoratzen da **adingabeek debekatuta dutela alkohola, tabakoa eta beste sustantzia batzuk kontsumitzea**, eta adin nagusikoek ere arduratsu kontsumitu behar dituztela.
- Egoki diren baliabide eta maiztasunarekin garbituko da sustantziak metatzea ekiditeko (**zakarra** eta beste batzuk).
- Azalera erraz **garbitzeko** modukoa izango da.
- Debekatuta dago **animaliarik** bakarrik uztea.
- **Aireztatze orokor** eta aldizkakoa ziurtatzeko sistema jarriko da usain txarrak ekiditeko.
- Lonja guztietan, lehen laguntzetako **botika-kutxa** eduki behar da.



Segurtasuna

- **Edukiera** maximoa errespetatu: pertsona bat m² erabilgarri bakoitzeko (hau da, baimentzen den azalera maximoa 100 m²-koa bada, ezin izango da 50 pertsona baino gehiago egon barruan).
- Lokalak **irteera** bakarra badu, ateak, gutxienez, 80 zmkoko zabalera izan beharko du, eta irteera horretara heldu arteko ibilbideak, ebakuazio kasuetarako, 25 metro izango du gehienez. Hortik gorakoa bada, bigarren irteera bat behar da.

Solairu altu baten badago lonja, beherantz ebakutzeko distantzia 6 metrokoa izango da gehienez, eta lonja soto baten badago, gorantz ebakutzeko distantzia, gehienez, 2 metrokoa izango da.

* Kontuan hartu, 50 pertsona baino gehiago biltzen bazarete, baldintza horiek aldatzen direla, eta kokapenaren eta lokalaren banaketaren arabera, izu-atea eta bigarren irteera eduki behar dituzuela.

- Irteera markatzeko, **seinale fotoluminiszentea** jarri beharko da ate gainean eta atera heldu arte lonjak gela bat baino gehiago baldin badauka.
- Irteteko **ateak** ezin dira barrutik giltzaz itxi, ezta pertsonak jaitsi ere lonja barruan inor baldin badago.
- Ezin da janaririk prestatu edo surik egin lonja barruan.
- Halaber, erregai, objektu edo bestelako materialik biltzeagatik (bonbonak, aldizkariak, egunkariak, beharrezkoak ez diren altzariak...) sute edo leherketa **arriskurik dakarren aktibitate** ezin da burutu.
- Suteak ekiditeko, arreta berezia jarri hormak eta teilatua apaintzen dituzten materialekin.
- 21A-113B eraginkortasuna duen 5 kg-ko su-itxalgailua edukiko da gutxienez. Urtero berrikusiko beharko da eta erabiltzeko prest egon beharko du.

- Lokalaren edozein lekutatik su-itzalgailura heltzeko distantzia 15 metrotik beherakoa izango da.

